



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

1. Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntza (2019-2020 ikasturtea)	2
2. Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak	4
3. Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko programa	7
4. Natura-ondarearen kontserbazioari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak	10
5. 2019. Diru-laguntzak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei, ingurumen-boluntariotzako proiektuak gara ditzaten	12
6. «Udalen Informazio Geografikoa» programa	13
7. Udal-plangintzan eta -hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak, 2019ko ekitaldiarako	15
8. 2019ko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalenzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia	17
9. Udalenzako eta toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hobekuntza-obrak egiteko.....	19
10. Ondare publikoak eratzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeko dirulaguntzak	21
11. Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko eta zabaltzeko laguntzak	22
12. Alokairua sustatzeko dirulaguntzak.....	24
13. Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa (EPE).....	29
14. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen kudeaketa-sistemen ezarpena, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatearen sustapena, jasangarritasuna eta berrikuntzarako laguntza sustatzeko laguntzak, Eraikal Programa	30
15. Partikularrek eta jabeen erkidegoek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentze-lanak hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonentzako sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko.....	32
16. Etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko laguntzak (Renove Programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko	38
17. Salgai dauden babes publikoko etxebizitzak.....	40



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntza (2019-2020 ikasturtea)

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 4koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua-rena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulagun-tzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita (2019-2020 ikasturtea).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1902759e.shtml>

Emate-erabakia <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905458e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen lerro honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei diru-laguntzak ematea, norgehiagoka-prozeduraren bidez, 2019-2020 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa garatzeko. Jardueren jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

444 diru-laguntza eman zaizkie unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei Eskolako Agenda 21 programa garatzeko.

EAEko derrigorrezko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen% 36k parte hartu du Eskolako Agenda 21 programan; ikastetxe publikoetako 226.212 ikaslek eta 444 irakaslek parte hartu dute Eskolako Agenda 21 programan (2019-2020 ikasturtea), irakasle ez diren langileez eta parte hartu duten udalerrietako teknikari eta arduradunetz gain.

EAEko 102 ikastetxek lortu dute "Eskola jasangarrien" aitortpena.

Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, guztira 752.000 €erabili dira laguntza horretarako, bi ordainketatan banatuta: lehenengo ordainketa diru-laguntza eman zen unean egin zen, 601.600 €rekin (guztizkoaren% 80); eta bigarren ordainketa jasotako diru-laguntza justifikatu ondoren egingo da, 154.400 €rekin (gainerako% 20).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
2019-2020 ikasturterako Eskolako Agenda 21 programan dauden unibertsitatez kanpoko ikasleen ehunekoa	% 65	% 60
2019-2020 ikasturterako Eskolako Agenda 21 programan dauden lanbide-heziketako ikasleen ehunekoa	% 10	% 54
Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzen kopurua, 2019-2020 ikasturterako Eskolako Agenda 21 programa garatzeko	450	444
Eskola jasangarritzat onartutako ikastetxeen kopurua	100	102
ur eta Gazteen Konferentzian (CONFINT) parte hartu duten ikastetxe jasangarrien kopurua		22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei eman beharreko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 25ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta diru-laguntzok emateko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua, deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903320a.pdf>

Emate-erabakia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000330e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei, Mankomunitateei, beste Toki-erakunde batzuei, Toki Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen Agentziei eta Tokiko Merkataritza-sozietateei. Ekintza horiek bat etorri behar dute lerro hauekin:

- a) Lurzoru kutsatuak. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerlanak, prebentzioa eta lehengoratzea egiteko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa. EAEn egoera arintzeko ekintzak (berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murrizteko ekintzak) eta egokitzeko ekintzak (klima-aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak).
- c) Natura-ondarea. EAeko dibertsitate biologiko eta geodibertzitateari eusteko eta berau leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra. Tokiko zirkulartasuna sustatzeko ekintzak.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21 edo Tokiko 2030 Agenda eta Eskolako 21 koordinatzea sustatzen duten ekintzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Orain arte, diruz lagundutako proiektuak 1.639 izan dira, eta horietara 54,2 milloi euro bideratu dira guztira:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	GUZTIRA
--	------	------	------	------	------	------	------	------	------	------	------	------	------	---------



Aurrekontu-zuzkidura <i>Mila euro</i>	7.160	7.440	8.402	7.100	6.734	3.705	2.000	1.810	1.810	1.810	1.960	2.160	2.160	54.251
Ebazpenaren Aurrekontua <i>Mila euro</i>	7.126	8.845	7.701	7.100	6.734	3.705	2.119	1.810	1.810	1.810	1.960	2.167	3.265	56.152
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	194	174	176	118	104	67	120	110	103	103	107	121	142	1.639

2019an, guztira 153 eskabide jaso dira. Lerroen arabera, honela banatzen dira eskabide horiek: Lurzoru kutsatuak: 17; Klima-aldaketa: 33; Natura-ondarea: 36, Ekonomia zirkularra: 15; eta Jasangarritasunerako hezkuntza: 52. Aurkeztutako eskabideetatik, euskal toki-erakundeen 142 proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak.

2019ko deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 2.160.000,00 euro dira eta honela banatu da:

- Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko 17 proiektuk 605.527,65 € jaso dituzte.
- Klima-aldaketari buruzko 29 proiektuk 1.338.732,70 € jaso dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ondare-naturalari buruzko 29 proiektuk 711.381,68 € jaso dituzte.
- Ekonomia zirkularreko 15 proiektuk 245.487,15 €
- Jasangarritasunerako hezkuntzari buruzko 52 proiektuk 260.000 € jaso dituzte.

Laguntzetarako agindua 2007an abiatu zenez geroztik, udal izaerako 1.639 proiektuk jaso dute diru laguntza, Eusko Jaurlaritzaren aldetik 56,1 milioi euro jasota, eta hori lagungarria izan da Euskadiko ingurumena hobetzeko.

Edonola ere, ingurumenaren zaintzak eta baliabide naturalen erabilera jasangarriaren sustapenak zuzeneko eta zeharkako eragin positiboa dute giza osasunean. Giza osasunaren gaineko edozein arrisku saihestek zuzeneko eragina du diru-kutxa publikoan, zeren osasungintzan aurreztera eramaten baitu.

Adibidez, herritarrak ingurumen kaltegarriaren eraginpean baldin badaude, kutsaduraren eraginez, horrek ondorio negatiboak sortzen ditu pertsonen osasunean, hala nola arnasteko arazoak, eta horrek kostu mardulak sortzen ditu osasungintza aldetik. Horrenbestez, ingurumena hobetzen eta zaintzen laguntzen den neurrian, ekonomia orokorrari ere laguntzen zaio, zeharka.

Lehen aipatutako ondorioek efektu positiboak dituztenez, ingurumenaren eta herritarren bizi-kalitatean ere ondorio efektu izateaz gain, horrek ekonomikoki justifikatzen du Agindu Proiektua.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
1. Erakunde onuradunak.	75	106
2. CO2 tonen murrizketa, urteko(tonak)	1000	1.132,70
3. Atmosferan saihestu diren partikulak (kilogramoak).	500	414,79
4. Urtean saihestu den oxido nitrosoa (kilogramoak).	1500	3.882,99
5. Kutsatuta egon daitezkeen lur-hektareak: ikertu edo leheneratu direnak	15	9,2
6. Ekonomia zirkularrari buruzko proiektuak.	10	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko programa

2.- Araua

- AGINDUA, 2019ko ekainaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, 2019ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten duena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuari jarraikiz.
- 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1902954e.shtml>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000123e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresei diru-laguntzak ematea da, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten.

Honako inbertsio-lerro hauek babesten dira:

- a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haragoko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.
- b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterlanak egiteko laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza metagarri hauek betez gero:
 - Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murrizteko erabiltzen da.
 - Beste egoera batzuetan, tratatutako material birziklatu edo berrerabiliak ezabatu egingo lirateke, edo ingurumena gutxiago zainduz tratatuko lirateke.
 - Laguntzek ez diete zeharka kenduko kutsaduraren erantzuleei Batasuneko legediaren arabera beraiek beren gain hartu beharrekoa den edo enpresa-kostu normalizat jo beharrekoa den ezein karga.
 - Inbertsioaren ondorio bakarria ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea material horien bilketa handitu gabe.
 - Inbertsioa teknikaren egungo egoeratik harago joango da.
- e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu»



printzipioaren arabera.

- f) f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diru-laguntzen erregimen horren 2019ko deialdiak bi prozedura aurreikusten zituen proiektuetarako laguntzak emateko, alegia, prozedura arrunta eta prozedura erraztua.

Deialdi horretarako 89 eskabide jaso ziren, eta atzera egin zutenak kenduta 77 geratu diren; horietatik, 72 esleitu egin ziren.

Ingurumen-emaitzei dagokienez, prozedura arruntaren arabera aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratu ondoren, Ingurumen Sailburuordetzak erabaki zuen 35 enpresak aurkeztutako 36 proiektu diruz laguntzea. Azpimarratzekoa da modalitate horretan diruz lagundutako enpresen % 66 inguru ETEak direla. Laguntza ekonomiko horien gutxi gorabeherako banaketa tematikoari dagokionez, prozedura arruntaren modalitatean honako hau izango da: osoko zenbatekoaren % 28 kutsadura atmosferikoari buruzko hamar proiektu sostengatzera zuzenduko da, % 42 hondakinen sorrera minimizatu edo ezabatzea zuzendutako hamabost proiektuetarako izango da, % 8 uraren kutsaduraren aurka borrokatzea edo baliabide hori aprobetxatzera zuzendutako hiru proiektuetarako, % 8 lurzorua saneatzeko/deskontaminatzeko hiru proiektuetarako, % 6 bi azterlan egiteko, eta, azkenik, % 8 usainen sorrera minimizatzeko/murrizteko hiru proiektu gauzatzeko.

Prozedura erraztua deritzanaren bitartez proiektuak egiteko emandako laguntzei dagokienez, honako helburu hauetara zuzendu dira, besteak beste: ETEei zuzendutako laguntzak ingurumenaren alorreko kanpo-aholkularitzako zerbitzuen kanpo-kostuak finantzatzeko, zehazki Ingurumen Kudeaketaren Europako Sistemaren Erregistroan (EMAS) inskribatzeko, bai aurreko aholkularitza eta bai erakundearen kostuak ordainduz; halaber, laguntzak erregistro hori berrizatzeko, Ekodiseinuaren UNE-EN ISO 14006:11 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko, Ekoetiketarako (I. edo II. motakoak) edo karbono-aztarnarako, eta ingurumen-gaiei buruzko beste Azterlan batzuk egiteko.

Orobat, azpimarratu behar da diruz lagundutako hamar proiektu ahalbidetuko dutela Erabileraz Kanpoko Ibilgailuek (EKI) sortzen dituzten hondakinak birmanufakturtzeko, desmuntatzeko eta arin eta efizientziaz deskontaminatzeko ekipoak eta makineriak erosteko inbertsioak egitea; adibidez: aire girotua eta beste likido kutsagarri batzuk (balazta-likidoa, izotz-kontrakoa) berreskuratzeko ekipoak erosteko inbertsioak.

Beste alde batetik, galdegietako moldekatze-hondar eta -finak lantegian bertan birsortzea eta/edo hirugarrenen bidez birziklatzea ahalbidetuko duten bi proiektu sostengatu dira.



Orobat, lurzoruaren kalitatea kutsatuta egon daitezkeen kokaguneetan ikertzeko hiru proiektu sostengatu dira.

Bukatzeko, azpimarratu behar da aukeratu dela BAT handiko hondakinak egokitzeko bi proiektu sostengatzea.

2019ko deialdira zuzendutako aurrekontu-zuzkidura 1.600.000 euro izan ziren.

Emandako 72 diru-laguntzei dagokien inbertsio garbiaren osoko zenbatekoa 9.142.079,90 € dira; zenbateko hori 11.721.114,80 €-ko inbertsio gordin bati dagokio.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Enpresek egindako inbertsio garbia	9.142.079,90 €	(*)
Emisioen murrizketa	90 tona partikula PM 2,5, 33 tona KOL, 2 tona bentzeno eta nikel, eta 6 tona CO2.	(*)
Hondakinen murrizketa	1.334 tona hondakin arriskutsu eta 2.091 tona hondakin industrial ez-arriskutsu.	(*)

(*) Oraindik ez dira emaitzak ezagutzen, izan ere, 202/2017 Dekretuaren 5. artikuluan ezartzen den bezala, gauzatze-epea diruz lagundutako proiektuan aurreikusten dena izango da, eta berau gehienez 2 urte eta 6 hilabetekoa izan daiteke urteko deialdia argitaratzen denetik; beraz, jarduera hauek 2021eko abenduaren 18ra arte luzatu daitezke.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Natura-ondarearen kontserbazioari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

2.- Araua

Agindua, 2019ko ekainaren 5koa (EHAA, 116. zk., ekainaren 20koa), Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, natura-ondarearen kontserbazioari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako 2019. urterako oinarri arautzaileak ezarri eta dirulaguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903012e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programaren 1. helburu estrategikoak ("gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz") ekosistemen eta haien zerbitzuen galera mugatzea jasotzen du bere jarduketa-ildoan artean, eta, horretarako, bere jardueren artean sartzen ditu natura-ondarea hobeto kudeatu eta kontserbatu ahal izateko ezagutza hobia izatearekin lotutako jarduerak.

Ildo beretik, 2030erako Biodibertsitate Estrategiak "naturaren ezagutza eta kultura sustatzea" ezarri du bere lau helburuen artean. Helburu horretan kokatzen da naturalismo zientifikoaren esparru honetan lan egiten duten erakunde eta elkarteei zuzendutako laguntza-programa hau, gizarteko eragile guztien erantzunkidetasuna ere sustatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan natura-ondarea kontserbatzeko ikerketa aplikatuko azterlanak eta lanak egiten laguntzea du helburu, Natura 2000 Sareko espazioei dagokienez, espazioen arteko koherentzia hobetzea barne; mehatxatutako basafauna- eta basafloa espezieak; eta biodibertsitateko beste elementu batzuk, hala nola Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak, hezeguneak, espezie exotiko inbaditzaileak, paisaia, etab.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 25 eskabide aurkeztu dira, guztiak epearen barruan.

Programaren aurrekontua 160.000 €koa izan da.

12 ikerketa-proiektu diruz lagundu dira: Araban 2 proiektu lagundu dira diruz (% 16,7), Bizkaian 4 proiektu (% 33,3) eta Gipuzkoan 6 proiektu (% 50). Aurrekontuan, dirulaguntzak % 8 dira Araban,% 39 Bizkaian eta % 53 Gipuzkoan.



Gaien arabera, proiektu gehienak flora eta fauna basatiaren kontserbazioarekin lotutako hainbat alderditan oinarritzen dira, eta ohikoagoak dira faunarekin lotutakoak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: diruz lagundutako proiektuen kopurua

Aurreikuspena: 10

Emaitza: 12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2019. Diru-laguntzak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei, ingurumen-boluntariotzako proiektuak gara ditzaten

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko irailaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, EAE ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazte-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904298e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen lerroaren xedea da diru-laguntzak ematea norgehiagoka-prozeduraren bidez. Diru-laguntza horiek jaso ahal izango dituzte 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Emandako diru-laguntzak: aurkeztutako 14 proiektuetatik 12.

Emandako zenbatekoa: 111.446 €, aurrekontu-partida agortu gabe.

Diruz lagundutako ingurumen-boluntariotzako proiektuetan parte hartu dutenak: 1.204 boluntario.

Diruz lagundutako proiektuen gai nagusia:

- Ingurumena eta paisaia berreskuratzea eta/edo garbitzea, espezie autoktonoak kontserbatzea, hazi-bankuak sortzea: 7 proiektu.
- Ingurumenarekiko sentsibilizazioa: 5 proiektu

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	15	12
Diruz lagundutako ingurumen-boluntariotzako proiektuetan parte hartzen dutenak	1.300	1.204



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Udalen Informazio Geografikoa» programa

2.- Araua

Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko maiatzaren 22ko Agindua, zeinaren bidez dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta haiek emateko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udaletarako, informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egin eta zabal ditzaten, 2019ko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Arau erregulatzaileria eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1902712a.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/10/1904497a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea EAEko udalei dirulaguntzak ematea da, udal-mugartearen mapa digital bat egiteko gastuak ordaintzen laguntzeko (paperean ere inprimatzeko modukoa). Mapa topografikoetan jaso ohi diren elementu guztiak bildu, berraztertu eta kokatu beharko dituzte, eta, gainera, gutxienez, toponimia, kale-izendegia, zerbitzuak, instalazioak eta interes publikoko hiri-elementuak ere jaso beharko dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta erabilgarritasuna, eta inpaktu soziala

2019ko aurrekontu-memorian, dirulaguntza 25 udali ematea aurreikusten zen, eta horrek 150.000 biztanleri eragingo lieke.

2019ko deialdian, emaitza hau lortu da: 18 udali eman zaie dirulaguntza; guztira, 165.895,08 euro eman dira, hau da, aurrekontuan jasotako zenbatekoaren % 83 (200.000 euro), eta horrek 686.498 biztanleri eragiten die (iturria: Eustat, 2018ko datuak). Nabarmentzekoa da deialdi honetan 10 udal onuradunek mapa digitalaz gain paperezkoa ere egitea hautatu dutela.

Lortutako emaitzak bat datoze aurrekontuen memorian aurreikusitakoarekin.

Dirulaguntzaren xede izan diren lanen erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, azpimarratzekoa da gizartearentzat oso garrantzitsua dela udal guztiek toponimia berrikustea; izan ere, bestela galdu egingo lirateke udal-mapetan egun islatuta eta bilduta ez dauden lekuen toponimoak. Lanoi esker, gainera, toponimook Euskadiko Nomenklator Geografikoan sartzea lortu da.



Bestalde, egitasmoa udalen webguneetan herritarrentzako informazio geolokalizatu oso baliagarria eskaintzeko baliatzen ari da: ekipamendu publikoak eta pribatuak, zerbitzu publikoak, atari- eta kale-izendegiak, bideak, parajeak, eta abar.

Informazio-iturri dira, gainera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako, toponimia osatzeko; eta EUSTATERako, kale- eta atari-izendegien datu-base bateraturako. Azkenik, Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzarentzat ere udal informazio georreferentziatua oso baliagarria da kartografia ofiziala eta Euskadiko Datu Espazialen Egituraren (DEA) bidez gizarteari eskaintzen zaizkion datuak eta zerbitzuak mantentzeko eta eguneratzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Udal kopurua	25	18
Biztanle kopurua	150.000	686.498



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udal-plangintza eta -hirigintza genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak, 2019ko ekitaldiarako

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 22koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, udal-plangintza eta -hirigintza genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/06/1902711a.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1904831a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren helburua da udal-plangintza eta -hirigintza genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea eta deialdia egitea, 2019ko ekitaldirako.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan ezartzen denez, EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko deialdian hamasei udalek aurkeztu dituzte eskaerak; horietako bi aurreko ekitaldian laguntzari uko egin zioten udalak dira. Hamasei udal horietatik batek atzera egin du eta beste bik ezezko erantzuna jaso dute eskatutako xedea ezin daitekeelako diruz lagundu. Orotara hamahiru udalek jaso dute dirulaguntza (Arabako lauk, Bizkaiko lauk eta Gipuzkoako bostek). Dirulaguntza jaso duten udaletatik hamabi euren plangintza orokorra berraztertze prozesuaren hasierako faseetan daude eta instrumentu horretan zentratu dira; hamahirugarren udala, ordenantzetan zentratu da.

Guztira, 131.470,41 euro banatu dira dirulaguntzetan, aurrekontuan eskura genuenaren % 66 (200.000 euro).

Egia bada ere ezin izan dela laguntzotara bideratutako aurrekontu-zuzkidura erabat gastatu, egiaztatu dugu udalen aldetik oraindik ere laguntzokiko interesa mantentzen dela. 2019ko deialdian laguntza jaso dutenen artean, aurreko ekitaldian egitasmoa ezarritako epean gauzatzeko ezintasunagatik laguntzari uko egin zioten hiru udaletatik bi daude; hau da, lana aurrera eramateko interesa zuten oraindik ere.



Nabarmendu beharra dago, halaber, oreka egon dela hiru lurralde historikoen artean, deialdi honetan parte hartu duten udalerriei dagokienez.

Egitasmoaren hasierako uneotan ez da posible ebaluazio sakonagoa egitea, oraindik orain lehen bi deialdietan egindako lanak soilik baititugu eskura. 2019ko deialdian dirulaguntza jaso zuten lanak entregatzeko epea 2020ko azaroaren 30era bitartean dago irekita, eta, beraz, uneotako ebaluazioa aurkeztutako eskaerak eta emandako dirulaguntzak zehaztera mugatzen da. Edozein kasutan, lehen bi deialdiek emandako emaitzak eta 2019ko deialdian aurkeztutako eta emandako dirulaguntzak ikusita ondorioztatzen denez, jarritako helburua betetzen ari da: bilatutako erabilera eta inpaktu soziala lortzen ari gara dirulaguntzarekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Emaitza</u>
Hirigintzako instrumentuen kopurua	13
Udalerrri kopurua	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2019ko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2019ko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

Arau erregulatzailerak eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903227a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903227e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1904737a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/10/1904737e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejueri dirulaguntzak ematea paisaiaren ekintza-planak egiteko gastuentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 6.1 artikulua ezartzen duenez, «paisaiaren ekintza-planak kudeaketa-bitartekoak dira, eta paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko jardunen eremuan egin beharreko ekintzak zehazten dituzte, paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta».

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurreko deialdietako paisaiaren ekintza-planen garapena oso desberdina izan da kasuan-kasuan, bai udal batzuen baliabide eskasiagatik, bai kudeaketaren beraren konplexutasunagatik, baita udal batzuek arlo honetan duten esperientzia faltagatik ere. Horren erakusle da, udalaren arabera, hirigintza arloak, kultura arloak edo ingurumen arloak kudeatzen dituela ekintza-planok. Aldiz, zenbait udalek ekintza-planok aurrera eramateko ahalegin handia egin dute eta badira Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean edo udal estrategian integratu dituztenak ere, adibidez Errearteria edo Astigarraga.



2018an egin bezala, 2019ko deialdian ere aurretik dirulaguntza bat jasota zuten udalerriei berriro eskaera aurkezteko aukera eman zaie, betiere, laguntza hori eman zitzaienetik hiru urte igaro badira.

Bestalde, gogoratu behar da laguntzon jatorria Eusko Jaurlaritzak 2009an Europako Paisaiaren Hitzarmenarekin bat egin izana dela. Hortaz, egitasmoa nahiko berria da, eta kontzientziazio-lan handia egin beharra dago oraindik halako gaitan. Hori dela eta, oraindik ere esan daiteke gaiaren inguruko jakintza falta handia dagoela sektorean, eta, horregatik, paisaiaren arloa lurralde-plangintzan eta hirigintzan txertatzea da helburua, ikuspegi oso batetik betiere. Horrela izatea funtsezkoa da beste arlo batzuekin transbertsalitatea lortu eta Europako beste herrialdeekin balioak eta ikuspuntuak partekatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurkeztutako eskaerak	15	10
Emandako dirulaguntzak	10	6*
Emandako dirulaguntzekin zuzenean eragindako herritarrak	85.000	106.575
Diruz lagundutako egitasmoak gauzatzeko batez besteko aurrekontua	25.000 €	23.122,50 €

*Emandako dirulaguntzak zazpi izan behar ziren, baina bat bertan behera geratu zen denboraz konpontzerik izan ez zen udal mailako auzi administratibo baten ondorioz.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udalentzako eta toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hobekuntza-obrak egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, udalentsako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak arautzen eta iragartzen dituen 2019ko ekitaldirako, hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten irisgarritasun-planak egin edo eguneratzeko eta hobekuntza-obrak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko uztailaren 24koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004063>

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 30ekoa, Etxebizitzako sailburuordearena. Honen bidez ebazten dira 2019ko ekitaldirako deitutako laguntzak, udalek, tokiko erakunde autonomoek, toki-erakunde txikiek eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuek hiri ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egin edo irisgarritasun-planak eguneratu ditzaten.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020001686>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2019ko uztailaren 24ko Aginduaren xedea da 2019ko ekitaldirako dirulaguntzak emateko araubidea arautzea eta deialdia egitea, irisgarritasun-planak egin edo eguneratzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko:

Diruz lagundu ahal diren jarduketak:

- Irigarritasun-planak egin eta idazteko eta plan horiek eguneratzeko lanak.
- Hiri-izaerako igogailuak eta plataforma jasotzaileak instalatzeko obrak.
- Eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko obrak. Obra hauek hartzen dira halakotzat: igogailuak eta plataforma jasotzaileak, arrapalak, komun eta aldagela egokituak, ateak eta eskudelak jartzea.
- hiri-ingurunean obrak egitea arrapala ez-mekanikoak eraikitzeke, pasabideak sortzeko eta eskudelak jartzeko.
- Kale urbanizatuak urbanizatzeko obrak Honako obra hauek hartzen dira halakotzat: espaloiak zabaltzea, zoladura podotaktila jartzea, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak



erreserbatzea, oinezkoentzako ibilbideak murrizten dituzten oinezkoentzako pasabideak, kaleetako plataforma bakarra, txorakoak ixtea eta urbanizazioak osorik birgaitzea.

f) Eraikinetan seinaleak eta ekipamendu egokitua erosi eta instalatzea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Dirulaguntzak emateko, 6.000.000 euro erabili ziren guztira; horietatik 300.000 euro 2019koak dira, 2.860.000,00 euro 2020koak eta 2.840.000,00 euro 2022koak.

Laguntza zer jardueratarako eskatzen zen aztertu ondoren, Balorazio Epaimahaiak 141 jarduera egiteko laguntzak ematea proposatu zuen. Laguntza ukatu zitzaizen jarduketan artean, 6 baztertu ziren, baldintzak betetzen zituzten jarduketa guztiak hartzeko aurrekontu-partida nahikoa ez zelako.

Lurralde historikoa	Erakunde onuradun mota	Erakunde Kop.	Diruz lagundutako jarduera: Plana	Diruz lagundutako jarduketa: obra
Araba	Udalak	21	8	23
Bizkaia	Udalak	32	14	30
	Erakunde pribatua	1	-	2
Gipuzkoa	Udalak	31	6	56
	Erakunde pribatua	1		2
Guztira		86	28	113

6.000.000,00 euroko dirulaguntzak eman ziren, honela banatuta:

Laguntza mota	Onartutako dirulaguntzak	Aurreikusitako inbertsioa	Eragindako biztanleak
Irigarritasun-planak	355.124,25 €	473.499,00 €	--
Hobekuntza-obrak	5.644.875,75 €	12.724.108,30 €	866.330 herritar

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Irigarritasun-planen eta -obren proiektuen kopurua	140	141



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ondare publikoak eratzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeko dirulaguntzak

2.- Araua

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitza araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, lurzorua berehala eraikitzeko urbanizazioari aplikatu beharreko finantza-neurriei buruzkoa, lehentasunez babes publikoko etxebizitzak sustatzeko. (2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

EHAA 134/2019 2019ko Etxebizitza-kredituen publizitate-agindua

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua udal lurzoru-ondareak eratzeko da, etxebizitza babestuak sustatzeko.

Laguntza-lerro hau udalei, tokiko erakunde publikoei eta udal-sozietate publikoei zuzenduta dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentziako dirulaguntzak. Urtero, sailburuaren agindu bidez, dirulaguntzen lerro horretara bideratutako kredituen berri ematen da.

2019ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura 50.000 eurokoa izan zen. Ez da inolako laguntzarik eman programa honetan, ez bait da aurkeztu eskaerarik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lortutako lurzoruaren gaineko etxebizitza eraikigarrien kopurua		0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko eta zabaltzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko azaroaren 28koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko eta zabaltzeko 2019ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Agindua.- [https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/o/2018/11/28/\(1\)/dof/eus/html/](https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/o/2018/11/28/(1)/dof/eus/html/)

Ebazpena.- [https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/res/2019/07/22/\(2\)/dof/eus/html/](https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/eli/es-pv/res/2019/07/22/(2)/dof/eus/html/)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honetan diruz lagun daitezkeen jarduerak honako hauek dira: erakusketak, hitzaldiak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea, aplikazio informatikoak eta material digitala ekoiztea, liburuak edo dibulgazio-gidak argitaratzea eta Euskadiko arkitektura garaikideari buruzko dokumentalak eta webguneak egitea, betiere Euskadiko Arkitekturaren Nazioarteko Biurtekoak ezarritako gogoeta-, elkarrizketa- eta eztabaida-esparruen barruan.

Aginduan zehaztutako ekintzetarako guztizko aurrekontu-zuzkidura 250.000,00 eurokoa da. Zenbateko hori honela banakatzen da dirulaguntza lerro bakoitzeko:

- I. lerroko: Euskadiko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea dibulgatzeko aldi baterako erakusketak eta lotutako alokairuak 165.000,00 euro bideratuko dira gehienez.
- II. lerroko: jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, workshopak eta lotutako alokairuak. Gehienez 25.000,00 euro bideratuko dira.
- III. lerroko (argitalpenak, dokumentalak, tresna informatikoak eta lotutako alokairuak), gehienez 60.000,00 euro bideratuko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

I. LERROA: Dirulaguntzaren zenbatekoa: 165.280,00 €. Diruz lagundutako proiektuak:

- "HIRU ELIZA Arkitektura sakratu errebisionista Vitoria-Gasteizen"
- Esposizio interaktiboa: "Etxebizitzaren bilakaera eta etorkizuna"
- #Nakagin Capsule San Sebastián
- "ZORROZAURRE erriberatik uhartera" (erakusketa)

II. LERROA: Dirulaguntzaren zenbatekoa 64.561,10 €. Diruz lagundutako proiektuak:

- Jardunaldiak: hiria eta paisaia: proposamen integratzaileak.



- Emakumeak EAEko arkitektura eta diseinuaren mugak eraldatzen
- Haur tailerrak
- #AZPIEGITURAKBARNE
- "Jardunaldiak: Bauhaus 1919-2019 Proiektu modernoa eta arteen integrazioa"
- "ZORROZAURRE erriberatik uhartera" (jardunaldiak)

III. LERROA: Dirulaguntzaren zenbatekoa 19.910,00 €. Diruz lagundutako proiektuak:

- 2019ko URBANBAT jaialdia

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Foroetan parte hartu dutenen kopurua, bereziki Bienalean.	Aurreko biurtekoa berdindu	45.000 bisitari (> 2017ko biurtekoa).



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Alokairua sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea.

BOE erregimena:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua sustatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).
- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- 2011ko finantza-lankidetzako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzorua arloan jarduketa babesgarriei buruzkoa.

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).



- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua sustatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, "Etxebizitza Hutsen Programa" sustatu eta bultzatzen duen, programa horren araubide juridikoa ezartzen duen eta programa hori kudeatzeko ardura "Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA" sozietate publikoari ematen dion Dekretua aldatzen duena. (VISESA). (2004ko ekainaren 11ko EHAA, 110. zk.).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua hirugarrenez aldatzen duena (316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsen Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, SAren esku uzten duena haren kudeaketa). (2009ko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, "Etxebizitza Hutsen Programa" esleitzeko baldintzei eta prozedurari buruzko Agindua aldatzen duena. (2004ko abenduaren 16ko EHAA, 239. zk.).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza Hutsen Programa lagatzeko baldintzei eta esleitzeko prozedurari buruzko Agindua hirugarrenez aldatzen duena. (EHAA, 225. zk., 2009ko azaroaren 23koa).
- 466/2013 Dekretua, 2013ko abenduaren 23koa, "Bizigune" etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena. (2013ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:

- 011ko finantza-lankidetzako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko jarduketara babesgarriari buruzkoa.



- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. Izapidetzen ari da (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

ASAP, etxebizitza libreen alokairu-merkatuko bitartekaritza-programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa):

- 144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programa arautzen duena. (2019ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.).

GAZTELAGUN PROGRAMA GAZTELAGUN

- AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena. (2018ko abenduaren 28ko EHAA, 249. zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

EHAA, 2015. Urtea	3/2015 Legea, Etxebizitzarena
EHAA 134/2019	2019ko Etxebizitza-kredituen publizitate-agindua

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzea da, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuz.

Alokairu babesturako etxebizitzaren sustapena diruz lagundu nahi da, alokairu babesturako etxebizitzaren erosketari diruz lagundu nahi da eta zuzkidura-bizitokiaren sustapena diruz lagundu nahi da. Errentamendua sustatzeko ildo horretan, landa-ingurunean udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak ematen dira.

Alokairu babesturako etxebizitzaren aldi baterako lagapena ere sartzen da, Gobernuaren jabetzako etxebizitzak, kolektibo jakin batzuei zuzenean esleitutakoak.

Horrez gain, Bizigune programa kudeatzen da etxebizitza hutsak mobilizatzeko, eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), etxebizitza libreak alokatzeko merkatuko bitartekaritza-programa.

2019ko ekitaldian, Gaztelagun Programari ekin zitzaion, EAEko gazteei etxebizitza duin eta egokia alokairu-erregimenean eskuratzeko erraztasunak emateko. Haren indarraldian, 4.500 gazteri zuzeneko laguntzak ematea da helburua. Gaztelagun programa, beraz, gazteei alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko erraztasunak emateko sortu da, errentariei (maizterrak) zuzeneko laguntzak emanez errentaren zati bat ordaintzeko. Laguntzak 3 urterako ematen dira.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako hauek dira alokairua sustatzeko dirulaguntzak: etxebizitzak alokairu babesturako sustatzeko dirulaguntzak; etxebizitzak alokairu babesturako erosteko dirulaguntzak; zuzkidura-bizitokiak sustatzeko dirulaguntzak, eta landa-inguruneetan udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak. Urtero, sailburuaren agindu bidez, dirulaguntzen lerro horretara bideratutako kredituen berri ematen da.

2019ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura urte anitzeko 12.000.000 eurokoa da (2019/2021). Ezarritako helburua tokiko erakundeek 125 etxebizitza sozial eta zuzkidura-bizitoki egitea izan zen. 2019ko ekitaldi honetan, alokairua sustatzeko lerroan, alokairu babesturako etxebizitzak sustatzeko laguntzak ebatzi dira, Irun, Donostia eta Bilbon 3 jarduketa egiteko eta guztira 83 etxebizitza egiteko. Dirulaguntzen zenbatekoa 2.421.000 eurokoa izan da.

Alokairu babesturako etxebizitzen aldi baterako lagapenari dagokionez, 192 etxebizitza eta lokal esleitu dira zuzenean 2019an.

BIZIGUNE PROGRAMA.

2019ko etxebizitza-programaren helburuetan, "2-Alokairu-eskaintza publikoa prezio eskuragarrietan handitzea. 2.d- partikularren alokairuko etxebizitzen eskaintza sustatzea, Biziguneko parkean 5.900 etxebizitza integratzeko helburua zehazten da.

2019ko amaieran, Biziguneko parkea 6.004 etxebizitzaz eta garaje librez osatuta zegoen, eta alokairu babestuan erabiltzeko hartu ziren. 2019ko abenduko datuetan oinarrituta, ekitaldi honetan 679 etxebizitza gehiago eskuratu dira.

ASAP, ETXEBIZITZA LIBREAREN ALOKAIRUAREN MERKATUKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa).

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuaren merkatuan sar daitezen erraztea, errentarientzako prezio eskuragarrian (2.d.2. helburua).

Berme-sistema bat ezartzen da, aseguru-poliza moduan, ez-ordaintzeak, balizko kalteak eta laguntza juridikoa estaltzeko, etxebizitza hutsen jabeek programan parte har dezaten sustatzeko.

Jabeei eskainitako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, alokairuen gehieneko prezioak finkatzen ditu, merkatu librean baino prezio baxuagoak eta lehiakorragoak bermatuz, eta, horrela, egoera sozioekonomikoengatik merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzaileek alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera handiagoak izan ditzaketela ziurtatuz.



Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritzako agente laguntzaileen sare bat sortu du. Sare horrek eginkizun garrantzitsu batzuk hartuko ditu bere gain aipatutako programa abian jartzeko eta martxan jartzeko.

Sortu zenetik, 2019an, 19 agente laguntzailek eman dute izena programan, lurraldeka honela banatuta: Áraaba: 2, Bizkaia: 6, Gipuzkoa: 9, Alokabide (hiru lurralde historikoetan bulegoak dituen), eta Araban eta Bizkaian bulegoak dituen erakunde bat.

2019an 8 etxebizitza gehiago hartu dira. Bildutako etxebizitza metatuak 271 dira.

GAZTELAGUN PROGRAMA

Jasotako eskaerak: 1.687

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gaztelagun onuradunak	157	360	229	746
Batez besteko dirulaguntza	212,50	226,58	222,86	222,62
Guztira	199.902,62	469.186,59	297.438,88	966.528,09

Urte bakoitzerako hasierako zuzkidura urte anitzekoa da, 22,5 milioi eurokoa.

	AURREKONTUAN	EBATZITA
2019	5.000.000	966.528,09
2020	7.500.000	1.695.998,49
2021	7.500.000	1.695.998,49
2022	2.500.000	847.999,25
GUZTIRA	22.500.000	5.206.524,32

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Alokairuko etxebizitzaren sustapena		83
Bizitoki-zuzkiduren sustapena	125	0
Alokairuko etxebizitzaren aldi baterako lagapena		192
Landa-eremua birgaitzea		0
Bizigune programa	5.900	6.004
ASAP programa	500	271
Gaztelagun programa	2.500	746



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa (EPE)

2.- Araua

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

EHA 119, 2015. URTEA

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du. Horretarako, etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat alokairuan jarriko da, baita etxebizitza libre bat ere, bitartekaritza-programen edo bestelakoen ondorioz eskuragarri badago.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ezean, eta subsidiarioki, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarriz egin ahal izango da ordainketa hori.

Etxebizitza edo bizitoki bat alokairu-erregimenean eskatzaileen eskura jartzea bermatu nahi da, eta, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko ekitaldian, 4.733 familiari aitortu zaie etxebizitza izateko eskubide subjektiboa. 2.934ri lehentasuna eman zaio esleipenean. 950 etxebizitza-esleipen ebatzi dira.

Etxebizitzako prestazio ekonomikoari dagokionez, 849 eskatzaileari eman zitzaizkien emakida, 679 itxi zirenean mantendu ziren eta 170 iraungi egin dira. 2019ko aurrekontuko hasierako zuzkidura 3 milioi eurokoa izan zen, eta ordainketa 2.034.011,54 eurokoa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
EES aitortua duten etxeen kopurua	5.000	4.733
EPE ordainketa	3.000.000*	2.034.011,54

* EPO ordaintzea, legezko eskumenagatik, Etxebizitzari dagokio, eta 2019ko dirulaguntzen planean haren eta EPEren zenbatekoa adierazten da. 2019ko ekitaldietan, EPOk Lanbideren esku jarraitzen du, ondorio operatiboetarako.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen kudeaketa-sistemen ezarpena, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatearen sustapena, jasangarritasuna eta berrikuntzarako laguntza sustatzeko laguntzak, Eraikal Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 9koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemen ezarpena, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko 2019ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena (Eraikal 2019 programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko uztailaren 9koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019003445>

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 7koa, Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko dirulaguntza-deialdiaren (Eraikal 2019 programa) ebazpena argitaratzeko dena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020000366>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak emango dituen laguntza ekonomikoak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresa eta profesionalen kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpena eta hobekuntza sustatzeko, jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2019 programa).

Bigarren artikuluan zehaztutako ekintzetarako aurrekontu-zuzkidura, guztira, laurehun eta berrogeita hamar mila (450.000,00) eurokoa izango da. Zenbateko hori honela banakatzen da dirulaguntza lerro bakoitzeko:

- I. lerroko (berrikuntza-proiektuak edo -azterlanak), gehienez ere ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro bideratuko dira.
- II. lerroko, tresna informatikoak garatzea, dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, gehienez ere ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro bideratuko dira.
- Kudeaketa-sistemak ezarri eta ziurtatzeko III. lerroko, gehienez berrogeita hamar mila (50.000,00) euro bideratuko dira.



- IV. ildorako, eraikinetarako ziurtagiriak ezarri eta egiaztatzeko, gehienez berrogeita hamar mila (50.000,00) euro erabiliko dira.

Eskabiderik ez egoteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik ez bada aipatutako jarduketa-ildoetakoren baterako esleitutako zenbatekoa agortzen, beste jarduera-ildo baterako esleitutako zenbatekoa handitu ahal izango du. Soberakina I. ildoari aplikatuko litzaioke lehenik, II. ildoari gero, IV. ildoari hirugarrenik, eta III. ildoari azkenik, agindu honen 11. artikuluan aurreikusitako organo ebaluatzaileak ildo horretan egindako proposamenaren arabera. Egoera hori Etxebizitza eta Arkitekturako zuzendariak dirulaguntzak emateko ematen duen ebazpenean jasoko da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programaren emaitzak:

<u>Lerroa</u>	<u>Proiektu kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza (€)</u>
I. lerroa	11	289.715,21
II. lerroa	4	65.512,54
III. lerroa	35	93.127,25
IV. lerroa	1	1.645,00
Guztira	51	450.000,00

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eraikal programak diruz lagundutako proiektuak	50	51



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Partikularrek eta jabeen erkidegoek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentze-lanak hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonentzako sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko

2.- Araua

BOE erregimena:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eska daitezkeen urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. (2011ko irailaren 30eko EHAA, 187. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko aukerarekin alokatzeari buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

BOE gehieneko prezioa:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

***Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:***

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, "Etxebizitza Hutsen Programa" sustatu eta bultzatzen duen, programa horren araubide juridikoa ezartzen duen eta programa hori kudeatzeko ardura "Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA" sozietate publikoari ematen dion dekretua aldatzen duena. (VISESA). (2004ko ekainaren 11ko EHAA, 110. zk.).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua hirugarrenez aldatzen duena (316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsen Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, SAREN esku uzten duena haren kudeaketa). (2009ko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, "Etxebizitza Hutsen Programa" esleitzeko baldintzei eta prozedurari buruzko Agindua aldatzen duena. (2004ko abenduaren 16ko EHAA, 239. zk.).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza Hutsen Programa lagatzeko baldintzei eta esleitzeko prozedurari buruzko Agindua hirugarrenez aldatzen duena. (EHAA, 225. zk., 2009ko azaroaren 23koa).
- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, "Bizigune" etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena. (2013ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Etxebizitza birgaitzea:

- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa. (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA, 18. zk.).
- AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua aldatzen duena. (2011ko azaroaren 29ko EHAA, 226. zk.).
- 317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (2002ko abenduaren 31ko EHAA, 249. zk.).
- Hutsen zuzenketa, honako DEKRETU honena: 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (2003ko apirilaren 7ko EHAA, 69. zk.).
- AGINDUA, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza-programa bat arautzen duena (revive programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (2012ko uztailaren 27ko EHAA, 146. zk.).



- 241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (2012ko abenduaren 14ko EHAA, 241. zk.).
- AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko Renove Planeko laguntzen programa arautzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. (2013ko abuztuaren 20ko EHAA, 157. zk.).
- AGINDUA, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuarena, etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurriei buruzko Agindua bigarrenez aldatzen duena. (2014ko abenduaren 1eko EHAA, 229. zk.).
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoan IATa arautzen duen dekretua aldatzen duena (2014ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zk.).

Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:

- 2011ko finantza-lankidetzako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzorua arloko jarduketara babesgarriari buruzkoa.
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. Izapidetzen (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

EHAA, 2015. urtea, 3/2015 Legea, Etxebizitzarena

EHAA 134/2019 2019ko Etxebizitza-kredituen publizitate-agindua

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eraikitako parkea birgaitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan, partikularrek eta jabeen erkidegoek birgaitzeko obrak egiteko dirulaguntzen ildo dago, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentze-lanak hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonentzako sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko.

Sistemaren oinarria da EAEn diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematea (administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren esparruan). Hitzarmen horren gainean, zuzeneko dirulaguntzen eta maileguen interesguneak diruz laguntzeko sistema bat egituratzen da, arauz ezarritako babes-kasu jakin eta tasatuetan.

Jarduketa babestuak, intereseko sorospenen kasuan, etxebizitza babesturako lurzorua erostean eta urbanizatzean eta alokairuko etxebizitzak sustatzean soilik biltzen dira.



Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kasuan, lurzoruaren eta alokairuaren aurreko bi ildo horiei etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea eta erabilitako etxebizitza libreak erostea gehitu zaie.

Laguntza-modalitateak jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio progresiboen sistema batekin, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Etxebizitza-programaren 2019ko aurrekontuaren helburuetan, bigarrenik, "Alokairuaren eskaintza publikoa prezio eskuragarrietan handitzea" adierazlea 2.e.1- Finantzaketa-esparru egoki eta egonkorra ematea 125 milioi euroko helburua adierazten da, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadin diharduten kreditu-erakundeen arteko finantza-hitzarmenaren mekanismoaren bidez finantzatzeko.

Helburu horren betetze-mailari dagokionez, ekitaldi-itxieran adierazten da 27,8 milioi euroko finantzaketa eman zaiola sistemari.

Balantze orokorrari erreparatuta, 2019an behera egin dute emandako maileguen kopuruak (101 mailegu) eta finantzaketaren zenbateko osoak (27,8 milioi euro).

Krisiaren ondoren, erosleei eta sustatzaileei maileguak ematerakoan tantaka jarraitzen du.

Maileguaren zenbatekoa aztertuta, etxebizitza erosteko maileguen batez besteko nominala 200.000 € ingurukoa da.

2016-2019 aldian formalizatutako maileguen laburpen-taula (2020/01/14an eguneratutako datuak)

Mota	2016		2017		2018		2019	
	Kop.	Formalizatua guztira	Kop.	Formalizatua guztira	Kop.	Formalizatua guztira	Kop.	Formalizatua guztira
BOE erosketa	35	3.609.994,27	15	1.345.599,36	2	221.434,00		
Erabilien erosketa	17	1.732.419,29	10	1.121.407,52				
Alokairurako erosketa			1	541.518,68				
Bizitoki-zuzkidurak							1	2.542.652,15
Sustapena	7	23.698.308,00	3	14.630.000,00	4	20.432.620,00	3	24.505.600,00
Birgaitzea	176	1.374.681,73	149	1.068.265,66	119	980.589,79	97	763.875,83
Guztira	235	30.415.403,29	178	18.706.791,22	125	21.634.643,79	101	27.812.127,98

Birgaitzeko maileguei erreparatuz gero, ez da aldaketa handirik ikusten, baina, oro har, kopuruak eta zenbatekoak behera egiten dute.



Birgaitzeko maileguen formalizazioak behera egiten jarraitzen du. Ez da alde handirik ikusten batez besteko zenbatekoetan birgaitze isolatuan (7.700 €) eta birgaitze integratuan (8.830 €).

Azterketa diferentzial batean ikusten denez, maileguen % 84,5 birgaitze isolaturako dira, eta % 15,5 birgaitze integraturako.

Etxebizitza birgaitzeko formalizatutako maileguak (2020/01/14an eguneratutako datuak)

Mailegua	2016		2017		2018		2019	
	Kop.	Formalizatua guztira	Kop.	Formalizatua guztira	Kop.	Formalizatua guztira	Ko p.	Formalizatua guztira
Birgaitze isolatua	147	1.118.449,91	128	858.654,99	100	783.419,26	82	631.405,65
Birgaitze integratua	29	256.231,82	21	209.610,67	19	197.170,53	15	132.470,18
Guztira	176	1.374.681,73	149	1.068.265,66	119	980.589,79	97	763.875,83

Dirulaguntzei dagokienez, 2019an zenbateko osoaren % 99 inguru birgaitzera bideratzeko joerari eutsi zaio.

Era berean, egitura-obrek eramaten dute dirulaguntzaren ehuneko handiena.

Dirulaguntza guztien % 47 egituran obrak egiteko erabiltzen dira, eta % 29 etxebizitzak egokitzeko.

Etxebizitzarako dirulaguntzak (2020/01/18an eguneratutako datuak)

Dirulaguntzak	2016		2017		2018		2019	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €
Erosleak	87	65	79	121	53	97	68	200
Birgaitzea	12.655	15.783	15.282	20.968	13.397	17.907	14.585	19.533
	12.742	15.848	15.361	21.089	13.450	18.004	14.653	19.733

Birgaitzeko dirulaguntzen banakapena, obra-motaren eta eragindako inbertsioen aurrekontu orokorraren arabera (zenbatekoak eurotan):

	2016	2017	2018	2019
Dirulaguntza	15.782.901,65	20.967.625,44	17.907.331,99	19.533.236,00
Egitura	8.478.219,24	9.861.900,33	8.339.361,00	9.845.675,00
Akabatua	141.416,27	111.965,51	125.750,00	107.177,00
Egokitzapena	3.974.373,49	5.159.540,49	5.103.929,00	4.947.327,00
Bilgarria	2.793.333,84	5.696.195,67	4.313.875,00	4.626.606,00
Ordainsariak	391.422,65	138.023,44	24.416,00	6.451,00
Aurrekontu babesgarria	266.888.691,25	296.960.767,08	424.237.152,10	522.613.654,39



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua:	10.352 352	11.196
Lokal kopurua		499
Komunitate kopurua		2.890
Instalaturako igogailuen kopurua:	4.950	3.068
Efizientzia energetikoa hobetu duten etxeen kopurua	2.628	2.231



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko laguntzak (Renove Programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko

2.- Araua

Agindua, 2019ko ekainaren 12koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, 2019. urterako etxebizitzak eta eraikinak modu efizientean birgaitzeko laguntza-programaren deialdia egin eta programa hori arautzen duena (Renove programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko ekainaren 5koa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019003012>

Emate-Ebazpena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020000493>

Emate-Ebazpenaren zuzenketa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020000494>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gutxienez sei etxebizitza dituzten eraikin-etxadiak edo etxebizitza-blokeak eratu arte elkartutako familia anitzeko eraikinei edo eraikin multzokatuei dagozkien proiektuek jaso dezakete dirulaguntza, edo gutxienez hamabi etxebizitza dituzten etxebizitza-blokeen alde bat eratu arte multzokatutako familia anitzeko eraikinen eraikin edo multzokatuek.

Familia anitzeko eraikinen eraikuntza-datak 1980 baino lehenagokoa izan behar du, eta hirigintza- eta egitura-egokitzapena izan behar du, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

Laguntza-programa honetara biltzen diren ondare eraikian esku hartzeko proiektuek lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzak, sute-arriskuaren aurkako segurtasuna eta efizientzia energetikoa hobetzera bideratuta egon beharko dute, agindu arautzailean adierazitako baldintzak betez.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Adierazitako epearen barruan 58 eskabide aurkeztu ziren; haietatik, 26 eskabidek atzera egin dute, 8 ukatu egin dira, eta 24k jaso dute 6.400.000,00 €-ko diru-laguntza (aurrekontutako kopurua), Lurraldez horrela banatuta:

<u>Lurraldea</u>	<u>Emandako dirulaguntza kop.</u>	<u>Etxebizitza kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza</u>
Bizkaia	16	355	4.170.700,97 €
Gipuzkoa	5	121	1.448.131,98 €
Araba	3	65	781.167,05 €
Guztira	24	541	6.400.000,00 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	1.322	541



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Salgai dauden babes publikoko etxebizitzak

2.- Araua

- Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea.
- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua sustatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).
- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: Agindua, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- 2011ko finantza-lankidetzako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzorua arloan jarduketara babesgarriei buruzkoa.
- 146/2015 DEKRETUA, uztailaren 21koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. Izapidetzen (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

EHAA, 2015. urtea, 3/2015 Legea, Etxebizitzarena

EHAA 134/2019 2019ko Etxebizitza-kredituen publizitate-agindua



4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko erraztasunak ematea da.

Erabilitako etxebizitza librearen erosketa diruz lagundu nahi da hiri-eremu espezifikoetan, birgaitze integratuko eremuetan eta eremu degradatuetan kokatzen direnean, jarduketa integratuetan lagunduta. Azalera-eskubideko etxebizitza babestuen sustapena ere diruz lagundu nahi da. Ildo hori VISESA Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA sozietate publikoarekiko programa-kontratuen bidez gauzatzen da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentziako eta lehiaketa publikoko dirulaguntzak.

Urtero, sailburuaren agindu bidez, erabilitako etxebizitza librea erosteko kredituen berri ematen da.

2019ko ekitaldian erabilitako etxebizitza librea erosteko aurrekontu-zuzkidura 230.000 eurokoa izan zen. 53 etxebizitza erosi ziren, 97.139 euroko dirulaguntzarekin. Finantza-hitzarmenari atxikitako 2 mailegu formalizatu ziren, 221.434 eurokoak.

Etxebizitza babestuak eta Sailak hitzartutakoak sustatzeari dagokionez, 2019an 217 etxebizitza eta zuzkidura-bizitoki hasi ziren. Itundutako sustapenetarako dirulaguntzen ildo horretan, dirulaguntzei uko egiteak puntuatzen duenez, sustatzaileek laguntzei uko egiten diete.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erositako etxebizitzaren kopurua		53
Azalera-eskubidean sustatutako etxebizitzaren kopurua	1.025	1.071
Operadore pribatuek eta kooperatibek		
VISESAk eraikitako etxebizitzaren kopurua	125	348